

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Foru Enpresak eta Foru Erakundeak****Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundea (GUFÉ)****GUFÉ-ko lan-poltsak kudeatzeko irizpideak aldatzea**

Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen Gobernu Batzak 2019ko apirilaren 3an eginiko bilera arruntean, besteak beste, honako erabaki hau onetsi zuen:

«*Lehenengoa:* GUFÉko lan-poltsak kudeatzeko irizpideak eguneratzea; horretarako, bigarren artikulua osorik aldatu behar da eta hirugarrenean 5. atala gehitu behar da. Aldaketon testua erabaki honen eranskin bakarrean jasotzen da, eta xedapen-zatiari lotuta eta gehituta geratzen da ondorio guztietarako.

*Bigarrena:* Erabaki hau GUFÉren iragarki-taulan eta web orrian eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea, jende guztia jakitun izan dadin. Jakinaraz bedi.

*Hirugarrena:* GUFÉko gerente andrea baimentzea erabaki honetan jasotakoak gauzatu eta garatzen direla bermatzeko behar diren ekintzak egin ditzan.»

Bilbon, 2019ko apirilaren 8an. — Gerentea, Teresa Alba Zubizarreta

**ERANSKINA****GUFE-KO LAN-POLTSAK KUDEATZEKO IRIZPIDEEN ALDAKETA****2. artikulua. — Lan-poltsa motak**

Lau motatako lan-poltsak daude:

- Lanpostu hutsak eta antzekoak betetzeko kontratuetarako.
- Iraupen luzeko kontratuetarako (lau hilabete edo gehiago).

Iraupen luzeko kontratuzat hartuko dira, betiere, honako ordezkapen hauek: haurdunaldiko arriskuaren eta amatasunaren ziozkoak, lanpostuaren erreserba duten eszedentziak, sindikatuan aritzeko liberazioak, euskara-ikastaroak, lanaldi partzialeko errelebu-kontratuak, amaiera-datarik ez duten edo lau hilabetetik gorako iraupena duten lanaldi-murrizketak, jatorria iraupen luzeko kontratu batean duten ordezkapenak eta lau hilabeteko edo gehiagoko zeregin-pilaketak.

Lanaldi-murrizketaren ziozko iraupen luzeko kontratu bat onartu dutenei kontratu osagarriak eskainiko zaizkie, titularra ez dagoenean haren absentsia betetzeko. Lanaldi-murrizketako kontratu bat onartzeak berekin ekarriko du plangintza aldian onartzea edo ukatzea dagokion plangintza osoa.

- Iraupen laburreko kontratuetarako (lau hilabete baino gutxiago). Halakotzat hartuko dira, beti, ABEaren ziozko kontratuak eta antzekoak, bai eta lanaldi-murrizketaren ziozko lau hilabetetik beherako kontratuak ere.
- Presazko kontratuetarako. Presazko kontratuak deritzenak betetzeko izango dira.

**3. artikulua. — Lehentasuna**

(...)

5. Lan-eskaintza publikoaren deialdia onartuta daukaten kategorietan eskaini ez diren baina ezinbestez bete behar diren lanpostu hutsak daudenean, onartu eta baztertutakoen behin betiko zerrendak onartzen dituen ebazpena argitaratzen denetik aukeraturakoen zerrenda argitaratu arte, behin bakarrik eta lehentasun-hurrenkeraren arabera eskainiko zaizkie lan poltsan daudenei, betiere «eskaini gabeko» lanpostu hutsik betetzen ez badituzte GUFEn, kategoria berean.